

## EDITORIALA



*Periferia, aldiria, exurbia, faubourg, banlieue, edge city, periurbea... Terminologia ugari sortu da suburbia deituko dugun hirugarren espazio postmoderno hori izendatzeko, ohiko hiriaren eta landaren arteko eremu lauso gero eta handiagoa eratzen ari dena. Lurra osoa irensten ari baita suburbanizazio-prozesua, auto pribatuaren erabilera masiboaren agerpenetik luze-zabalean edonon hedatu dena.*

*Suburbiako bizimodua osasuntsuagoa zirudien hasieran, duela laurogei urte. Espazio rururbanoak hiriko zein landako baliabideak uztartzeko aukerak eman behar baitzizkigun. Eta zorionsuago izateko leku berezi bat. Hala ageri da Mendebaldeko familia ideala Bigarren Mundu Gerraren ondorengo etxebizitza familiabakarrak saltzeko propagandan: senar-emazteak hesirik gabeko lorategitxoak apaintzen, irribarretsu, umek bertan jolasten duten bitartean.*

*Ametsa, baina, okertzen joan da, suburbia zerbait berezi izatetik urbanizazio-eredu ohikoena izatera pasa ahala, dagoeneko ez-leku hutsala bihurtuta. Dentsitate baxuko suburbiak hirien lurzoru-okupazioa biderkarazi du, errepideen eraikuntza nabarmen areagotu, eta hiri-bilbean bertan txertatuta egon zitezkeen zenbait erabilera (saltokiak, bulegoak, ikastegiak...) lurraldean zehar sakabanatu. Eredu suburbanoa agortuta dagoela dirudi, ez baita jasangarria, ez ekologikoki ez sozialki.*

*Baina arazo suburbanoak ez du zertan konponezina izan. Eta nolabaiteko inspirazio-iturri ere izan daiteke suburbia. Badago zer aztertu.*